

# Azken hitzak

ALEMAN, Sagrario  
Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua

*Euskera*. 2011, 56, 3. 653-656. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Arratsalde on guztioi:

Eskerrik asko Arabako Foru Aldundiari Jagon Jardunaldi hau egin ahal izateko eman digun laguntzagaritik, bereziki zuri, Iciar Lamarain, Euskara, Kultura eta Kirol saileko diputatu andrea. Artium-eko arduradun eta langileei egin diguzuen arretagaritik mila esker.

Jardunaldiak prestatzen Euskaltzaindiarekin batean aritu zareten euskalgintzako talde eta pertsona guztiei. Araban zer behar dagoen, zer lanetan ari zareten eta zer egin duzuen zuek baino hobeki inork ez baitaki, eta zuek gabe zail baikenuke gaur, hemen zaudetenen gogoko eguna antolatzea.

Eskerrak entzutera eta parte hartzera gaur hona etorri zareten horiei. Eskerrak batez ere, zuen egitasmo, iritzi, gogoeta eta esperientzien berri emateko txostena prestatu eta ezagutzera eman diguzuenei. Eta eskerrak mahai-inguruan izan zareten herri-erakundeetako ordezkari horiei.

Jagon Saileko Sustapen batzordeak, nahitaez, egunero euskararen sustapenean lanean ari diren talde, elkarte eta instituzioekin bat jokatu behar du, horien lana ezagutu, elkarren berri izan eta elkar indartu. Garrantzitsua da guretzat harreman hori, eta uste dugu jardunaldi honek eta aurretik izan ditugun bilerak horretarako baliagarriak izan direla. Aurrera begira ere elkarrekin euskararen sustapenean segitzeko gure nahia adierazi nahi dugu.

Gaur, jardunaldi honetan, argi ikusi dugu Araba euskalduna izan dela. Manu Ruiz Urrestarazuk ekarri dizkigun Arabako toponimoek horixe adierazten digute. Jon Aizpuruak eman dizkigun datuek, Araban zenbat elebidun eta nolakoak diren; non euskaldunduak, eta 1981etik 2006ra zenbaki horiek nola aldatu diren aztertuz, ohartzen gara euskara bizirik dagoela. Eskola eta euskaltegiek egin duten lana ikaragarria izan dela ere ondorioztatu dezakegu. Miel A. Elustondok ere, hain zuzen, horixe azpimarratu du, herri ekimenez egin den lana. Olatz Altuna kale erabilerari buruz aritu da, eta hor urrats handiak eman beharra dugula ikusi dugu, oraindik erabilerahula baita.

Euskararen etorkizuna hobea izan dadin gure hizkuntza planteamendua aldatzeaz aritu zaigu Iñaki Martínez de Luna, aurrez aurre dauden oraingo

planteamendu aldarrikatzailea eta uzkurra baztertu, eta horiek egokituz eta gaurkotuz beste bat egin. Eta arratsaldean, erabilera areagotzeko Araban abiatu dituzten ekimenak eta martxan jarri nahi dituzten egitasmoak ezagutzeko parada izan dugu: Mintzalaguna, kuadrilan bertsoan, hedabideak, euskara planak aisialdian, eta, azkenik, merkataritza eta ostalaritzan euskararen sustapena. Geroan ere, Araba euskalduna nahi dutela erakusten digute egitasmo hauek.

Eskerrak, bada, euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko eta zabalteko lanean ari diren eta aritu diren talde eta pertsona guztiei.

Guztiok batean segi dezagun aurrera!